

CARNAVAL



SABADO
2^{DE}MARZO
DE 2019

M/ha *wh*

LA HISTORIA DE TXANTXAGAIN

Eran días de duro invierno. Unos tiempos en los que las gentes del valle de Elorz convivían a duras penas con los largos meses de frío. En pleno siglo XIX era habitual subsistir gracias a los recursos propios de la zona, a la agricultura y a la ganadería. Uno de los grandes acontecimientos del año era la matanza del cuto, que aportaba alimentos para los meses venideros.

Aquel día, los vecinos y vecinas, impacientes, madrugaron y se reunieron en la calle para empezar con los preparativos de la matanza: los grandes calderos repletos de cebolla, los barreños para recoger la sangre del cerdo, las cucharas, el gancho, el banco, las cuerdas... Tradicionalmente era el mayor de cada familia el encargado de clavarle el cuchillo al cuto, mientras que las mondongueras se ocupaban de llevar la sangre de los barreños para hacer las morcillas. Después, se quemaba el animal con paja para quitar el pelo y posteriormente se descuartizaba.

Tras el matatxerri era costumbre reunirse para comer en la plaza. Pero todo fue diferente la mañana de aquel sábado. Mientras la mayoría se afanaba en los preparativos de la comida popular alguien se dio cuenta de que les habían robado. La noticia corrió como la pólvora por todo el pueblo. La población quedó desconsolada. ¿Quién podía haber sido? Sin tiempo para lamentaciones se organizaron en kalejira para ir en busca de otros alimentos con los que preparar una comida improvisada.

Cuando iban casa por casa descubrieron, en la cuadra de “la parada”, una bandurria. Solo podía pertenecer a una persona: el Txantxo de Andricain, más conocido como Txantxagain. Era un bebedor y ladronzuelo solitario que acostumbraba a deambular con su bandurria por los pueblos del Valle de Elorz. Se le había visto varias veces merodeando las casas y cuadras, siempre con un saco hecho con trapos viejos de colores donde guardaba todo aquello que robaba.

Comenzaron a buscarlo inmediatamente. Utilizaron la música para ver si conseguían atraer así su atención. Pero no tuvieron éxito y decidieron parar en la plaza para comer. Tras el improvisado banquete comenzó una nueva búsqueda. Esta vez, por miedo a las posibles represalias, cubrieron sus rostros con trapos y gorros. Cogieron los utensilios de la matanza, todavía manchados de sangre para impresionarle aún más, y fueron de nuevo a la caza de Txantxagain. No podían faltar la música ni la copla en tono guasón:

**“Trapu zaharrak erreta,
Txantxagain, Txantxagain,
gaitzak uxatu eta dantzatu orain”.**

Y, finalmente, lo encontraron. Aún llevaba su saco de trapos en el que guardaba la mercancía robada. Vecinas y vecinos le abordaron, le increparon y le pidieron cuentas. En ese momento, una mondonguera, consciente de que todos los allí presentes también tenían “trapos sucios” que ocultar, pidió clemencia por él. Txantxagain, asustado, había entendido que no podía continuar con esa conducta y parecía realmente arrepentido. Entonces, todo el mundo se desprendió de sus gorros y trapos dejando sus rostros al descubierto. Decidieron quemar en una hoguera todos esos trapos, así como el saco. Tras quemar el odio y el rencor surgió una verdadera amistad que se prolongaría para siempre. La música continuó con baile y degustación de la mercancía robada para el deleite de todos y todas.

LOS PERSONAJES DEL CARNAVAL

Mondongueras y mondongueros



Herreras y herreros



Bodegueras y bodegueros



Trilladoras y trilladores



Pastoras y pastores



- **Mondongueras y mondongueros:** Mujeres y hombres encargados de preparar los productos (morcillas, chorizos, chistorras...) durante la matanza con recetas que se transmitían de generación en generación. Eran hábiles en el manejo del hacha y los cuchillos y siempre estaban manchados de sangre.
- **Herreras y herreros:** Puede que sea el oficio que más arraigo tuvo en el Valle de Elorz. Eran los creadores y reparadores de todos los instrumentos necesarios para la vida diaria. Vestían de azul y con capa de tela de saco. Siempre manchados de negro por el hierro, se les reconoce por su inseparable martillo.
- **Bodegueras y bodegueros:** Estos simpáticos personajes, conocedores del ámbito doméstico y amantes de las fiestas del valle, se caracterizaban por llevar los pantalones remangados tras pisar la uva y, por supuesto, siempre manchados de "pitarra" (así se llamaba al vino que se hacía en las casas) y con el pellejo o la bota de vino colgada del brazo.
- **Trilladoras y trilladores:** A ellas y ellos había que agradecerles la materia prima para el pan. Se caracterizaban por su tez morena debido a las largas horas pasadas bajo el sol en el campo y por las zoquetas que llevan en sus manos.
- **Pastoras y pastores:** Siempre pegados a sus cayados, eran parte del paisaje del valle hasta hace pocas décadas. Los había autóctonos, con casa y ganado en nuestros pueblos. También había algunos que ocasionalmente hacían parada por estos lares mientras hacían la trashumancia del Pirineo a las Bardenas. Es por ello que se podían apreciar distintos tipos de vestimenta.

PROGRAMA SÁBADO 2 DE MARZO

- **Exposición carnavales:** Entre el **18 de febrero** y el **1 de marzo** los trajes de los personajes de nuestro carnaval estarán expuestos en el vestíbulo del Centro Cultural de lunes a viernes en horario de **9:00 a 21:00**.
- **10:00: Dianas**..... por las calles de Noáin de la mano de los **Gaiteros de Pamplona**.
- **11:00: Puskabiltza/Cuestación**... con **Acordeones Egieder** y los **Gaiteros de Pamplona**.
Desde el Centro Cultural los participantes se dividirán en dos grupos para recorrer la Calle Real entrando en los comercios a recoger puskas para la comida. El final del recorrido será en el Centro Cívico, donde habrá bailables y comida para los participantes.
- **18:30: Kalejira de carnaval**..... buscando al ladrón Txantxagain por las calles de Noáin. Desde la calle San Miguel, junto a la Escuela de Música, acompañados de la **Charanga Turrutxiki y la Fanfarre de la Escuela de Música**.
**El recorrido será el siguiente: calle San Miguel, calle Real, rotonda de El Descanso, calle Camino de la Fuente, plaza Madre Teresa de Calcuta (parada, apresamiento de Txantxagain y bailes), carretera Jaca, travesía Jaca, calle Real, rotonda El Descanso, carretera Salinas, plaza San Miguel.*
**EN CASO DE MAL TIEMPO, LA KALEJIRA SE SUSTITUYE POR UN ENCUENTRO EN EL FRONTÓN DEL COLEGIO.*
- **19:30: Quema de trapos sucios**.... Tras la llegada a la plaza San Miguel, los participantes en la kalejira decidirán el futuro de Txantxagain cantando y bailando el tema central compuesto para la ocasión y tendrá lugar la quema popular de todos los "trapos sucios" del año.
- **20:00: Chistorrada**..... en la plaza San Miguel a cargo del **Club de Jubilados**.
Este año el reparto de chistorra se hará desde la ludoteca.
- **1:00 – 6:30: Baile de disfraces**.... en el bar de las piscinas de verano con discomóvil a cargo de **Mikel Sevillano, Bámbole Producciones**.

ORGANIZA:

Patronato de Cultura Etxe Zaharra del Ayuntamiento de Noáin (Ualle de Elorz).

Colectivos colaboradores:

Ardantzeta Dantza Taldea, Noaingo Gau Eskola, Taller de Teatro de Torres de Elorz, Nymeria Teatro, Escuela de Música Julián Gayarre, CC Bidea, Grupo Scout Lykos, Club de Jubilados de Noáin y comercios de Noáin.

Agradecimientos:

Familia Armendáriz Asiain, familia Domingo Armendáriz, Mari Izco, Librería Angelines, Lorenea, Biblioteca Pública de Noáin, Colegio Público San Miguel, Elortzibar Servicios Deportivos.

Centro Cultural
Kultur Zentroa
Noáin - Valle de Elorz
Noain - Elortzibar



INAUTEA



2019^{ko}
MARTXOAK 2
LARUNBATA

M/K *W/K*

TXANTXAGAINEN ISTORIA

Negu gorriko egunak ziren. Garai hartan, Noaingo biztanleak estu eta larri ibiltzen ziren hotz handiko hilabete luze haietan. XIX. mendean, jendea tokian tokiko gauzekin bizi zen, eta hemengo bizibide nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza ziren. Urteak funtsezko hainbat gertakari izaten zituen, eta horietako bat txerri-hiltzea zen, txerriak elikagai asko ematen baitzituen hainbat hilabetez bizitzeko.

Egun hartan, auzokideak oso goiz jaiki ziren, pazientzia gutxikoak baitziren; kalean elkartu, eta berehala hasi ziren den-dena prestatzen txerria hiltzeko: hau da, tipulaz beteriko pertzak, txerriaren odola biltzeko ontziak, koilarak, kakoa, mahaia, sokak... Ohiturari jarraiki, familia bakoitzeko gizon zaharrenak sartzen zion labana txerriari. Mondongeroak, berriz, emakumeak izaten ziren; hau da, odola ontzietan bildu eta odolkiak egiten zituzten. Gero, txerriaren azala lastoarekin erre, eta zatikatzen zuten.

Txerri-hiltzearen ondotik, jendea plazan elkartzen zen txerriak jateko. Larunbat goiz hartan, ordea, den-dena ezberdina izan zen. Batzuk herri-bazkaria buru-belarri prestatzen ari ziren bitartean, baten bat ohartu zen lapurreta bat gertatu zela. Albiste hura zitzu bizian zabaldu zen ibarreko biztanleen artean, eta denak jota gelditu ziren, atsekabetuta. Nor izan ote zen? Baina ez zen kezaka ibiltzeko unea eta, zirt-zart, berehala kalejira antolatu zuten beste elikagai batzuen bila joateko, zeozer bazkaltze aldera.

Etkez etxe karrikadantzan zebiltzanean, “paradako” ukuluan bandurria bat aurkitu zuten. Pertsona bakar bat izan zitekeen musika-tresna haren jabea: Andrikaingo Txantxo, baina jendeak Txantxagain esaten zion. Hura gizon edanzale eta eskuluze bakartia zen, eta noraezean ibiltzen zen alde batetik bestera bandurriarekin, Elortzibarko herrietan barna. Jendeak hainbat aldiz ikusia zuen etxe eta ukulu inguruetan, zokomiran, koloretako trapu zaharrekin egindako zakua gainean zeramala, lapurtzen zuen guztia gordetzeko.


Jendea berehala hasi zen haren bila. Musika ere jo zuten, gizona erakarri nahian. Alferrik, ordea. Ez zen haren arrastorik. Jendea plazan gelditu eta bazkaltzen hasi zen. Bazkalondoren, berriz ere hasi ziren Txantxoren bila. Baina, harako hartan, buruak trapu eta txanoekin estalita zihoazen, Txantxok inor ere ezagutu ez zezan, haren beldur baitziren. Txerria hiltzeko tresna odoleztatuak hartu zituzten, gizona beldurrarazi nahian, eta berriz ere abiatu ziren Txantxagain harrapatzera. Musika eta adarra jotzeko koplak, ezin ziren falta:

**“Trapu zaharrak erreta,
Txantxagain, Txantxagain,
gaitzak uxatu eta dantzatu orain”.**

Azkenean, aurkitu zuten. Trapuz egindako zaku hura zeraman; ebasten zuen guztia gordetzeko erabiltzen zuena. Auzokide batzuek gizonari heldu, gaizki esaka hasi, eta kargu hartu zioten. Une hartan, mondongera batek, bertan zeudenak gorde beharreko “trapu zaharrak” bazituztela ere jabetuz, errukia eskatu zuen harentzat. Txantxagain izutua zegoen, eta ulertu zuen ezin zuela segitu horrela jokatzeko; damutua zirudien egiazki. Orduan, auzokide guztiek buruko txanoak eta trapuak erantzi zituzten, aurpegiak agerian utzita. Trapu horiek guztiak sutan erre zituzten, baita zakua ere. Gorrotoa eta gaitzakeria erre ondoren, betirako iraungo zuen benetako adiskidantza sortu zen auzokideen eta Txantxagainen artean. Gero, soinu dantzagarriak jo zituzten, eta ebatsitako guztia jan zuten, denen gozamenerako.

INAUTERIETAKO PERTSONAIAK

Mondongeroak



Arotzak



Sotolariak



Gari-jotzaileak



Artzainak



- **Mondongeroak:** Txerri-hiltzean txerri-puskak prestatzen dituzten gizon-emakumeak dira, odolkigileak; hau da, odolkiak, lukainak, txistorrak egiten dituztenak. Belaunaldiz belaunaldi ikasitako errezetak erabiltzen zituzten. Oso trebeak ziren aizkora eta labanak erabiltzen, eta beti odolez zikinduta egoten ziren.
- **Arotzak:** Garai batean, Elortzibarko lanbiderik errotuena izan omen zen. Eguneroko bizitzarako behar ziren tresna guztiak sortu eta konpontzen zituzten. Urdinez janzen ziren, eta zaku-oihalez egindako kapa bat zeramaten. Beltzez zikinduta egoten ziren beti, burdinaren eraginez. Eskuetan mailua daramate.
- **Sotolariak:** Pertsonaia jatorrak dira, etxe esparrua ezagutzen dute, eta ibarreko jaiak maite dituzte. Galtzak jasota daramatzate mahatsa zapaldu ondoren, eta jakina, beti "pitarrak" zikinduta daude (etxean egiten zen ardoari horrela esaten zitzaion) zahagia edo ardo zatoa besapetik zintzilik.
- **Gari-jotzaileak:** Haien esker, ogia egiteko lehengaiak lortzen zen. Larruazal beltzarana zuten, orduak eta orduak ematen baitzituzten alor eta larrainetan eguzkipean, eta eskuetan zoketak edo kaxoletak eramaten zituzten.
- **Artzainak:** Beti beren makilari itsatsita zebiltzan eta ohiko irudietako bat izan dira gure Ibarrean, duela hamarkada gutxi arte. Batzuk hemengoak bertakoak ziren, hau da, gure herrietan bizi eta hemen ere artaldeak gobernatzen zituzten. Beste batzuk, berriz, noizbehinka gelditzen ziren bazterrotan, Pirinioetatik Bardeara transhumantzian zihoazela. Horregatik, hainbat janzkera mota zerabiltzaten.

EGITARAUA: MARTXOAK 2, LARUNBATA

- **Inauteari buruzko erakusketa:** **otsailaren 18tik martxoaren 1a** bitarte, gure inauteetako pertsonaien jantziak Kultur Zentroaren atarian erakusgai egongo dira, **9:00etaitik 21:00etara**, astelehenetik ostiralera.
- **10:00:** **Dianak**..... Noainen barna **Iruñeako Gaiteroen** eskutik.
- **11:00:** **Puskabiltza**..... Kultur Zentrotik, puskabiltza **Egieder Taldearen** akordeoiekin eta **Iruñeako Gaiteroekin**. Real kalean zehar ibiliko gara, bi taldetan banaturik, eta komertzioetan sartuko gara bazkarirako puskak biltzeko. Ibilaldia Gizarte Zentroan bukatuko da, bertan dantzak izango dira eta bazkaria parte-hartzaileentzat.
- **18:30:** **Inauteetako kalejira**..... San Migel kaletik, Musika eskolaren ondotik, abiatuko da inauteetako kalejira. Noaingo kaleetan barna ibiliko da Txantxagain lapurraren bila **Turrutxiki Txaranga eta Musika Eskolako Fanfarreak** lagundurik.
**Honatx ibilbidea: San Miguel kalea, Real kalea, El Descansoko errotonda, Camino de la Fuente kalea, Ama Teresa Kalkutakoa plaza (geldialdia, Txantxagain harrapatzea eta dantzak), Jakako errepidea, Jakako zeharkalea, Real kalea, El Descansoko errotonda, Getzeko errepidea, San Migel plaza.*
**EGURALDI TXARRA EGITEN BADU, KALEJIRAREN ORDEZ IKASTETXEKO PILOTALEKUAN ELAKRTUKO GARA.*
- **19:30:** **Trapu zaharrak erretzea**... San Migel plazara iritsi ondoren, kalejiran parte hartu dutenek egun honetarako sortutako konposizioa abestuz eta kantatuz erabakiko dute zer egin Txantxagaineekin. Ondoren urteko “trapu zahar” guztiak erreko ditugu.
- **20:00:** **Txistor-jana** **Jubilatu Elkartean** eskutik. Aurten txistorra banaketa ludotekatik egingen da.
- **1:00 – 6:30:** **Mozorro dantza**..... Udako igerilekuen tabernan disko mugikorrarekin, **Bámbola Producciones** etxeko **Mikel Sevillanoren** eskutik.

ANTOLATZEILERA:

Noain Elortzibarko Udaleko Etxe Zaharra Kultur Patronatua

Talde laguntzaileak:

Ardantzeta Dantza Taldea, Noaingo Gau Eskola, Dorreko Antzerki Tailerra, Nymeria Teatro, Julian Gayarre Musika Eskola, CC Bidea Scout Lykos Taldea, Noaingo Erretiratuen Elkartea.

Gure esker onak:

Armendariz Asiain familia, Domingo Armendariz, Mari Izco, Angelines Liburudenda, Lorenea, Noain Elortzibarko Liburutegi Publikoa, San Migel Ikastetxe Publikoa, Elortzibar Kirol Zerbitzuak.

Centro Cultural
Kultur Zentroa

Noáin - Valle de Elorz
Noain - Elortzibar

